



*Umeentzako  
parkeen  
berrikuntza-  
lanak*

*/3. orrialdea*

*El Crucero  
auzoko lokala  
kirol-elkarte  
bati laga zaio*

*/4. orrialdea*

*Pobeñako  
pasabidea  
birgaitzeko  
diru-laguntzak*

*/5. orrialdea*

*Elkarrizketa  
Muskizko  
Merkatarien  
Elkartearekin*

*/6. orrialdea*

## Editoriala

### *Hazkunde eta ilusio kolektiboa 2013rako*

Egia da 2013 hasi berria ez dela perspektiba onekin abiatu: ekonomia atzeraka doa, eskubide sozialak apurka-apurka galtzen ari gara, langabezia-tasa haziz doa eta pesimismo-giro orokorra bizi dugu, eta ezaugarri horiek batere positiboa ez den panorama marrazten dute, baina horrek ez gaitu funtsezkotik desbideratu behar: egoera desatsegin honek indar, gogo eta konpromisozko dosi gehigarria eskatzen digu denoi, tunel honen amaierara hurbilduz joateko.

Ez dago gure esku denborak markatzea, baina ziur nago, ahalegin handia eginda, ataka honetatik irtengo garela. Konponbidea: borondatea, konfiantza, ekintza, talentua, erabakimena, azkartasuna eta, batez ere, lankidetzak. Lankidetzak, bai; izan ere, denon artean baino ezin izango dugu ilusio kolektiboko dinamika positiboa berria sortu, egoera konpontzeko eta haziz joateko.

Egia da krisi global batean gaudela, baina benetan uste dut eragin handia izan dezakegula herri mailatik, aldaketa positibo hori gerta dadin. Hori horrela, gidatzen dudana gobernuak aurrera jarraituko du duela urte eta erdi abiarazitako proiektuekin, eta, gainera, 2012an hasitako Enpleguaren aldeko Talka Plana hobetzeko lan egingo du; modu horretan, iraupen luzeko gazte eta langabeen artean enplegua sustatuko du, bai eta autoenplegua eta trebakuntza ere.

2013. urtearen hasieran, politikaren zentzu moral eta etikoa nabarmendu nahi dut, eta adierazi nahi dut herritarren zerbitzurako tresna gisa balio duela, gizartearen berdintasunarekiko eta kohesioarekiko konpromisoa hartzeko tresna izateaz gain. Gobernu-talde honen agerian jarri nahi du lotura honen gaurkotatasuna, eta lankidetzan aritzera animatu nahi zaituztegu: arazoak partekatatu behar ditugu, modu horretan konponbideak ere partekatuko ditugulako. Denok ados bagaude horrekin, jarraitzeko lanean oraintxe bertan.

Urte berri on!

**Borja Liaño Abarrategi**  
Alcalde de Muskiz



## *Gabonetako txartelak baliabiderik gabeko familientzat*

**U**dalak, Merkatarien Elkartearekin lankidetzan, premia biziko elikagaiak eskuratzeko 40 txartel banatu ditu Gabonetan. Onuradunak egoera ekonomiko txarrean dauden eta adin txikikoak dituzten Muskizko familiak izan dira.

Bonuen balioa 70 eurokoa zen, eta elikadura arloko herriko saltokietan trukatu behar ziren; besteak beste, harategi, arrandegi, fruta-denda edota jangaien dendetan. Eki-men honen bitartez, Udalak helburu bikoitza bilatzen zuen: alde batetik, egoerarik

txarrean dauden herritarrei laguntza txiki bat ematea, Gabonak modu atseginagoan ospatu zitzaten; eta, bestetik, herriko saltokietan kontsumoa sustatzea, sektoreari eragiten dion krisi ekonomikoaren ondorio negatiboak aurre egiteko asmoz.

Ekintza honen amaierako aurrekontua 3.000 eurokoa izan da, eta txartelak eskuratu dituzten familiak zozketa bidez aukeratu dira, Muskizko Udaleko Gizarte Zerbitzuek alde aurretik izendatutako familien artean.

## *Herritarren partaidetza Tokiko Agenda 21 ekimenean*

**U**dal arduradunak Tokiko Agenda 21 delakoaren Ekintza Plana egiten aritu dira, datozen 8 urteotan herrian garatu beharreko ildo estrategikoak, programak eta ekintzak definitu ahal izateko. Lan hori amaituta, Muskizko Udaltzako udal agenteen eta herritarren partaidetzarako bideak ireki ditu, Tokiko Agenda 21 ekimena berrikusteko lehenengo fase honetan.

Azaroaren 19an, Informazio Batzordea egin zen, Ekintza Plana talde politikoei aurkezteko; eta azaroaren 27an, berriz,

herritarren partaidetzarako saio bat antolatu zen Udaletxeko Batzar Aretoan. 54 enpresa, 66 elkarte, 84 saltoki, 55 ostalari, 5 ikastetxe eta 2011ko abenduan egindako foroko parte-hartzaile guztiak gonbidatu ziren saio horretara.

Tokiko Agenda 21 delakoaren Ekintza Plana zaharkituta zegoen 2004tik, eta, beraz, 2011ko azaroan, tresna hau berrikusteko ekintzak abiarazi ziren. Garai hartan foro bat egin zen, udalerraren egoerari buruzko diagnostiko zehatza egin ahal izateko ideiak biltzeko, eta hortik abiatzeko.

# Umeentzako olgeta-guneen berrikuntzalanak, Muskizko lau auzotan

## Lanak udaberrirako burutzea aurreikusi da

**E**l Crucero auzoko umeentzako parkeak estalki berria izango du eta, modu horretan, atseginago egingo zaie erabiltzaileei han egotea. Kantauri aldeko klimatologiak aisialdiko leku hauen erabilera mugatzen du eta Udalbatzak ahalik eta etekinik handiena atera nahi die. Aldez aurretik eskatutako azterketak ezagutzera eman duenez, inbertitu beharreko kopuru ekonomikoaz gainera, estalkietarako materialik eta diseinurik egokienak zeintzuk diren adierazi du. Lanak urtarrilean abiaraziko dira eta 230.000 euro baino gehixeagoan esleitu dira.

Herritarren eskaerak artatzeko politikaren barruan, Udalak haurren beste hiru olgetagunetan gauzatu nahi ditu berrikuntzalanak, hain zuzen ere, San Juan industriagunean eta San Julian de Musques eta Laureta auzoetan.

### Handitze eta berrikuntza lanak

Aipatutako azken bi auzo horietako olgetaguneak berritzeak 20.000 euroko inbertsioa ekarriko du. Hobetu beharreko lan nagusiak hurrengoak dira: lurreko egungo lauzak gomazko estaldurekin ordezkatzeta eta hondatutako atrakzioak berritu eta margoitzea. Laureta auzoko parkea kasu be-



rezia da, izan ere, parkea bera inguratzeko hesia jartzea aurreikusi da, kolore biziduneko listoiekin, segurtasun neurri gisa, txikiak errepidera hurbil ez daitezten.

Egun gauzatzen ari den bestelako jardue- ra bat Errota Zaharreko oinezkoentzako kalean kokatutako parkearen handitze- lanak dira, San Juan industriagunearen barruan. Proiektu honetan, parterreak berritzea aurreikusi da, olgeta-gunean sartu eta tantakako ureztapen sistema berri bat instalatzeko eta parketik hurbilen dauden luminariak ordezkatzeko. Lan hauetarako aurrekontua 95.000 eurokoa da.



## Muskizen irudia txorkoetan

Muskizen erdigunean kokatutako zuhaitzen ehun bat txorkotan kolore urdineko hormigoi porotsua jarriko da, Udal logotipo berriarekin. Neurri honekin oinezkoen mugikortasuna hobetu gura da jende asko ibiltzen den kaleetatik eta, aldi berean, Udalaren marka berria zabaltzea. Horietako bakoitzarentzat aurreikusitako gutxi gorabeherako gastua 98 eurokoa da.



## Ekintza plana soinu-eragina murrizteko

Udala Muskiz zeharkatzen duten errepideen eta udalerriko industria-jardueraren soinuak duen eragina murrizteko neurriak hartzen ari da, bai egoitza-guneetan bai natura-guneetan. Horretarako, udalbatzorde bat sortuko da, esparru hauetan eskumena duten kanpoko kudeatzaileekin batera, jarduera ildo zehatzak ezar daitezten.

Aldez aurretik, Udalbatzak Soinu Ingurumena Hobetzeko Ekintza Plana onartu

du, eta, dokumentu horren arabera, datoren bost urteotan, sei jarduera-ildo garatu beharko lirakeke. Horien artean, kanpoko kudeatzaileekin elkarlanean aritzeaz gainera, aipatzekoak dira: informazio akustikoaren hobekuntza, eragin akustikoaren prebentzioa, "gune lasaien" babesa eta esparru honen gaineko kontzientziazioa.

Prozesu honen neurri osagarri gisa, datoren otsailean, Udalbatzak zarata arautzen duen Ordenantza onar lezake.

## Liburutegia, haurrentzako espazioa

Instalazioak hobetu eta haurrei zuzenduriko espazio espezifikoak eskaintzeko ahalegina egin ondoren, umeez arduratzen diren langileekin, Udal Liburutegia biztanle guztiei zerbitzuak eskaintzen dizkion erabilera eta balio askoko leku bihurtu dute. Azaroaren erdialdean, erabiltzaileen bertaratze-datuek eta materialen maileguen gaineko datuek 2011koak gainditu zituzten nabarmen, eta orain 25 urte zabaldu zenetik lortutako onenak izan dira.

Gainera, inauguratu zenetik, ipuin-kontalarien saioak antolatzen dira estreinakoz eta Haurrentzako Irakurketa kluba ere sortu da, klub aitzindaria, izan ere, taldekideek 6-7 urte dituzte eta irakurtzen hasi dira. Esperientzia hau esperimendu moduan abiarazi zen ikasturtearen hasieran, eta espero ez zen harrera izan du. Lehenengo taldea berehala bete zen eta bigarrena, be-



rriz, guztiz beteta dago. Hirugarrenerako ere itxaron zerrenda dago. Beste alde bate-tik, liburutegi hau 2.0 webgunearen tresnak aplikatu dituen lehena izan da.



### Izotz-pista berria

Igaro berri diren Gabonetan, Udalak jendearentzat antolatutako jardueren artean berritasunik handiena izotz-pista izan da, San Juan plazako Donibane frontoian. Patinatzeko 400 metro koa-droko azalerarekin, eta animazio-moni-tore birekin, ekimen honek herritarren sostengua izan du eta arrakasta handia izan da, bertaratutako kopurua ere handia izan baita.



## El Crucero auzoko udal lokalaren berritze-lanak, kirol erabilerarako

El Crucero auzoko frontoian dagoen udal lokala (erabilera-rik gabe eta hezetasunekin) berritu egingo da eta Muskizko Eskubaloi Taldeari utziko zaio. Jarduera honen bitartez, elkarte honek aspaldi egindako eskaera bati erantzun nahi zaio, izan ere, taldearen zuzendaritzakoek beharrezkotzat jotzen zuten esparru bat edukitzea materiala gorde ahal izateko. Taldeak, gainera, 150 bazkide ditu egun, eta hainbat neska-mutiko aritzen dira kirol talde eta kategoriatan.

Instalazio hau berritzeko lanek 27.000 euroko kostua izango dute eta igeltserotza, iturgintza, pintura, elektrizitatea eta barneko aro-ntzeria lanak egingo dira.



## BBK-k nagusien etxea laga dio Udalari

BBK-k eta Udalak lankidetzan hitzarmena sinatu dute, bankuak Udalar Nagusientzako Zentroa laga diezaion, 4 urte-z eta kostu ekonomikorik gabe. Ezohiko kasua da hau, izan ere, banku-erakundearen politika mota hauetako lokalak ixtea da.

BBK-k berak lokala berritzeko egin dituen lanak amaitu ondoren, giltzak entregatu zaizkio Muskizko Hirugarren Adin-koen Elkarteari, berau izango baita espazio hori kudeatu eta administratzeaz arduratuko dena. Orain arte egin den bezala, zentro honetan pertsona nagusiei zuzenduriko tailerrak eta jarduerak ludikoak antolatzea aurreikusita dago. Beste alde batetik, Udala izango da instalazioen mantentze-lanak egingo dituenak.

## ***Eusko Jaurlaritzak eta Aldundiak Pobeñako igarobidea berritzen lagundu dute***



**P**obeñako igarobidearen lehengoratzte-integralaren lanak egiteko Udalak bideratutako kudeaketek euren fruitua eman dute.

Eusko Jaurlaritzak 100.000 euro baino gutxiagoko emakida onartu berri du, Itsaspen bere programaren bitartez. Kopuru horri Bizkaiko Foru Aldundiak eraikuntza hau egonkortzeko lanetarako emandako 308.500 euroak gehitu behar zaizkio.

Udalak aurreikusitakoaren arabera, igarobidearen lehengoratzte integrale-rako lanak datorren otsailaren amaieran bukatuko dira, betiere, baldintza klimatologikoez ahabidetzen badute. Gaur egun, betearazteke dagoen lan bakarra igarobidearen zoladura da, eta, horretarako, hamabost egunez jarraian ez luke eurririk egin beharko.

Pobeñako igarobidearen lehengoratzte-integralerako lanak fase ezberdinetan betearazi dira, Kosta Mugapeak ezarritako epeak betetze aldera eta La Arenako hondartzako erabiltzaileei kalteak ekidin edo murrizteko. Gisa horretan, uztailean, egonkortze lanak buruturik zeuden.



## ***Movistarrek El Cerro auzoko antena kenduko du***

Movistarrek El Cerro auzokoan kokatuta zegoen estazio-erradioelektrikoa kenduko du. Udalak azpikontrataturako enpresa espezializatu batek zegokion baimenik gabe funtzionatzen zuen instalazioa eraisteko lanak ikuskatuko ditu. Neurri honekin, amaiera emango zaio 2003az geroztik operadorea eta Udala liskartzen zituen eta Bilboko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan hainbat sententzia eragin dituen desadostasunari.

## ***Espaloiak eta galtzadak berritzeko lanak, Magdalena auzoan***



Auzo honetan, lau atari daude, bost solairuko eraikinekin, eta 200 pertsona bizi dira gaur egun. Auzokideek Udalari eskatu zioten galtzada eta espaloiak berritzeko lanak egiteko, orain dela zenbait hamarkadatik ukitu ez zen gunea atondu zezan. Lanak amaituta, esan dezakegu espaloietako 500 metro koadro eta galtzadako 720 metro koadro berritu izan direla.

Amaierako aurrekontua 87.000 eurokoa da eta hurrengo lanak bideratuko dira: egungo baldosa zulatua tonu ezberdineko hidraulikoarekin ordezkatzea, egokitutako sei pasagune ibilgailuentzat, baranda saneatzea eta zirkulazio-seinaleztapena margotzea, marra zuri eta horiekin.



## ***Bidegorria San Juanen***

Bizikletentzako bide berriak kilometro eta erdiko luzera izango du eta 2,5 metroko zabalera, ibilbide osoan. Ibaigane kaleko bidegurutzean abiatuko da, San Juan industriagunean, eta Giba kaleko aparkalekuetan amaituko da. Lanak 8 asteko epean egingo dira eta aurrekontua, gutxi gorabehera, 203.000 eurokoa izango da.

# EL KAR RIZ KETA

## Muskizko Merkatarien Elkartea

Muskizko Merkatarien Elkarteak 1996ko otsailaren 15ean sortu zen, bere gaur egungo ibilbidea zehazten duen helburu berarekin: "gogor lan egitea", herriko merkataritza sustatu ahal izateko. Eta sektoreko beste instituzio batzuk ahalegin hori aintzat hartzen hasi ziren. Hain zuzen ere, duela gutxi, Ezkerraldendak, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko merkatarien elkarteak biltzen dituen Federazioak, elkarteko kideetako bat omendu du.

*“Ilusio handia dugu eta lanean ari gara”*

**G/ Nolako da Ramón Urbanetari emandako sariari buruz egiten duzuen balorazioa?**

*E/ Oso eskertuta gaude, zeren eta, sari honenkin, aintzat hartzen da bere harategiaz*



*Ramón Urbaneta, Ezkerraldendak, Ezkerraldeko eta Meatzaldeko merkatarien elkarteak biltzen dituen Federazioak, omendutako gainerakoekin batera.*

*“Sektoreak bizi duen krisiak ez du gure ilusioa itzaliko”*

*arduraten 40 urte daramatzen pertsona baten ibilbidea eta dedikazioa. Edizio honetan, Ezkerraldendak zenbait profesionali egin die omenaldia; hain justu, merkataritza izan dituen krisiei eta joera zein kontsumo aldaketei aurre egiten jakin izan dutenei.*

**G/ Gabonak oso garai esanguratsua dira merkataritzaarentzat. Zein ekintza antolatu dituzue egunotarako?**

*E/ Aurten, lehen aldiz, Muskizko Udalarekin lankidetzan, elikadurarako 40 txartel zozkatu ditugu baliabiderik gabeko familien artean. Ekimen honekin, herriko saltokietan kontsumoa sustatzeaz gain, gure alderik gizatiarrena eta solidarioena erakutsi nahi dugu. Gainera, beste bost sorta zozkatu ditugu (bakoitza 450 euroan balioetsitakoa), gure bezeroek elkarteko saltokietan egin ditzaten erosketak.*

**G/ Zein da sektorearen une honetako egoera, Muskizen?**

*E/ Beste edozein udalerritan bezala, Muskizen garai txarra bizitzen ari gara, sektore guztiei oro har eta herrietako saltokiei bereziki eragiten dien krisia dela eta. Baina ilusio handia dugu, eta lanean ari gara, egoera honi gogoz heltzeko asmoarekin.*

**G/ Zein ekintza dituzue aurreikusita urte honetarako?**

*E/ Gure planetako asko urte luzez sendotutako ekintzak dira, eta aspalditik antolatzen ditugunak. Muskizko herritarrek oso ondo hartu dituzte, eta ekintza horiek egiten jarraitu nahi dugu. Esate baterako, Moda Desfilea, Muskizko jaietan antolatzen diren lehiaketa gastronomiko batzuk babestu eta bertan parte hartzea, Erakusleihen Lehiaketa tradizionala eta Salgaien Azoka.*

## Aurrezkoa aseguruak elkartzekoan

*Udalak aseguru-poliza korporatiboak esleitzeko politika aldatu du, kontratazio-baldintzetan hobekuntza nabarmenak lortzeko eta urtean 20.000 euro inguru aurrezteko.*

Gobernu Batzordeak poliza guztien kontratazioa konpainia bakarrarekin bateratzea erabaki du. Ondorioz, besteak beste, aurrekontu-partida honetara bideratutako zenbatekoaren %40 aurreztu da, oro har. 2012-2013 ekitaldirako, kontzeptu honengatik ordaindu beharreko zenbatekoa 25.000 euro ingurukoa izango da.

Berriki esleitu diren aseguru-polizak honako hauek dira: ondarearen erantzukizunarekin erlazionatutakoak, udal agintari eta funtzionarioenak, korporatiboen is-



tripuengatikoa baliaezintasun edo heriotza arriskuak estaltzen dituzten aseguruak, udal korporazioaren defentsa juridikoa, eta Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoarekin erlazionatutako kasuak.

## Sexu Heziketarako Programaren luzapena

Lehen eta Bigarren Hezkuntzetera bideratutako Sexu Heziketarako 2012-2013 ekitaldiko Udal Programa luzatu egin da. 9.250 euroko zenbateko globala duen programa honen berrikuntza nagusia da herriko ikastetxe guztietan egingo dela, Somorrostroko Lanbide Heziketakoan barne. Xarligo Sexu Heziketa hezkuntza afektibo eta sexualerako programa integrala da; bertan, 10 eta 16 urte bitarteko ikasleek, beraien irakasleek eta nerabeen familiek hartzen dute parte. Ekimenaren bitartez, portaera sexistak prebenitu eta neska-mutilekin harremanetan dauden estamentu guztiak inplikarazi nahi dira.